BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

1266

EBAZPENA, 2012ko urtarrilaren 27koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Rivabellosan, Erribera Beitiako udalerrian, Compañía Logística de Hidrocarburos CLH SA enpresak sustatzen duen gasolio-biltegia handitzeko instalazioen proiektuak ingurumenaren gainean duen eraginaren adierazpena egiteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, I. eranskineko B) atalean agertzen diren proiektuak ingurumenaren gaineko eragina banaka ebaluatzeko jardunbide baten mende egongo dira, eta jardunbide horri amaiera emateko Ingurumenaren gaineko Eraginari buruzko Adierazpena egin beharko da, betiere proiektu horiek egiteko edo, hala badagokie, baimentzeko hartzen den administrazio-erabakiaren aurretik.

Rivabellosan, Erribera Beitiako udalerrian, Compañía Logística de Hidrocarburos CLH SA enpresak sustatzen duen gasolio-biltegia handitzeko instalazioen proiektua baimentzeko prozedura hasita, eta ondorengo araudian xedatutakoa aplikatuz: batetik, otsailaren 27ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko 3/1998 Lege Orokorra eta, bestetik, proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko legearen testu bategina onartzeko den urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua. Beraz, bi arau horiek betez, proiektu horrekin zerikusia duten eta jarraian aipatzen diren izapideak gauzatu dira, besteak beste:

– Ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanaren edukia ezartzea. Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eskatuta, 2011ko urtarrilaren 11n Ingurumen Sailburuordetzak kontsulten izapideari hasiera eman zion, proiektuek ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Behin Ingurumen Sailburuordetzak 2011ko apirilaren 5ean proiektuak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlanaren zabalerari eta xehetasun-mailari buruzko txostena bidali eta gero, izapide hori bukatu egin zen.

– Jendaurreko informazioaren izapidea. Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, organo eskudunak, jendaurrean jarri zituen proiektua eta ingurumenaren gaineko eraginaren azterketa (2011ko irailaren 14ko Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 108. zk. eta 2011ko irailaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 177. zk).

– Dosierra bidaltzea eta ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen eskatzea. 2011ko abenduaren 15ean, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak Ingurumen Sailburuordetzari igorri zion dosierra, proiektuek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 artikuluan ezarritakoa betez.

Aipatutako proiektuaren dosierrean ageri diren txostenak eta dokumentazio teknikoa aztertuta, ikusi da ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlana zuzena dela, eta indarrean dagoen araudian ezarritakoari egokitzen zaiola. Ingurumen Sailburuordetza da ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpena emateko eskumena duen organoa, xedapen hauen arabera: alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, eta, bestetik, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua. Eta, hortaz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1.– Rivabellosan, Erribera Beitiako udalerrian, Compañía Logística de Hidrocarburos CLH SA enpresak sustatzen duen gasolio-biltegia handitzeko instalazioen proiektuak ingurumenaren gainean duen eraginari buruzko aldeko adierazpena egitea.

2.– Honako baldintza hauek ezartzea proiektua burutzeko; baldintzok lotesleak dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.2 artikuluari jarraiki.

2.A.– Proiektua, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztutako agirietan jasotakoaren arabera eta, berariaz, ebazpen honetan finkatutako zehaztapenen arabera gauzatu beharko da.

Espediente honen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio prozedura Compañía Logística de Hidrocarburos CLH SAk Rivabellosan petrolio produktuak biltegiratu eta banatzeko dituen instalazioen biltegiratze edukia handitzeari dagokio. Hau da, gasolioa biltegiratzeko zortzi tanga berri eraikitzean datza handitzea, eta kubetetan instalatuko dira, beharrezko instalazio osagarriekin batera, ponpa sistema, instrumentazio eta kontrol sistema, drainatze sareak eta tutu sareak, konexio elektrikoak, suteen aurkako babes sistema, bideak. Hala eta guztiz ere, prozedura honetan lehendik dauden eta aurreikusten diren instalazio guztien multzoa izan da kontuan, proiektu osoaren baitan, ingurumenean eragin dezaketen ekintzen konbinazioaren ondorio sinergikoak balioesteko. Era berean, egungo eta etorkizuneko instalazioetan izango diren neurri babesle eta zuzentzaileen egokitasuna aztertu da, bai eta neurri horien eraginkortasuna zaindu eta kontrolatzeko modua ere.

2.B.– Proiektua aldatu edo handitu nahi izanez gero, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da, bere II. eranskineko 9.k) epigrafearekin bat, haren bidez onartu baitzen Proiektuek Ingurumenean duten Eragina Ebaluatzeko Legearen testu bategina.

Proiektuan egingo diren aldaketa jakinak aurreko idatzi-zatian adierazitako garrantzirik ez dutenean, lanak burutzeko falta diren gainerako prozeduretan sortzen direnean, ingurumenaren ikuspegitik ere arrazoitu egin beharko dira, eta aldaketok proiektuko neurri babesle eta zuzentzaileetan, ingurumena zaintzeko programan, aurrekontuan eta baldintza-agirietan sartuko dira.

2.C.– Neurri babesle eta zuzentzaileak.

Babesteko eta zuzentzeko neurriak egitasmoaren sustatzaileak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa egiteko aurkeztu zituen agirietan jasotakoaren arabera gauzatuko dira. Era horretan, batetik neurri horiek ezarrita, eta bestetik kontrola gauzatzeko pertsonala jarrita, kalitate-helburuak bermatu ahal izango dira: azterketan finkatutakoak eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko adierazpen honetan ezarritakoak. Ondorengo idatzi-zatietan adierazitako neurriak gehitu beharko dira.

Neurri hauek guztiak, obra kontratatzeko baldintzetan sartu beharko dira eta baldintza horiek betetzen direla bermatuko duen aurrekontua izan beharko dute.

2.c.1.– Eraikuntza garaiko neurri babesle eta zuzentzaileak.

2.c.1.1.– Natur ondarea babesteko neurriak.

a) CLH biltegiratzeko Rivabellosako instalazioa handitzeko proiektua ezartzeko lurzatia Natura 2000 sarearen ondoan dago, Baia Ibaia BIL Batasunaren Intereseko Lekuan dago (kodea: ES2110006). BIL izendatzea bidezkotzen duten ingurumen balioak behar bezala babeste aldera, eta Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren gainean emandako txostenak kontuan izanda, proiektatutako handitzeak 50 metroko atzeratzea errespetatu beharko du Baia ibaiaren ohiko uholde orbanetik.

b) Obrak eta lurzoruaren okupazioa ekartzen duten eragiketa osagarriak proiektuaren mugen barruan garatuko dira. Obrako materialekin ahalik eta lekurik txikiena hartuko da, eta makinak zein ibilgailuak ibiltzeko finkatutako eremuetatik kanpo ez ibiltzen saiatuko da. Horretarako, lanak hasi baino lehen, lanen gehieneko okupazioaren mugatze zehatza eta zedarritzea egin behar da.

Adierazi den eremutik kanpo ustekabeko eraginik gertatzen bada, zuzentzeko eta leheneratzeko neurri egokiak aplikatuko dira, ebazpen honetako 2.c.1.9 idatzi-zatian ezarritako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren.

c) Proiektua ezartzeko eremuarekin mugakide den Baia ibaiaren zatia Arriskuan dauden Espezieen Euskal Katalogoan «galtze bidean» dauden bost espezie katalogatuen Interes Bereziko Eremua da. Espeziook dira eta Arabako Lurralde Historikorako onartutako kudeaketa planak dituzte: Ur-ipurtatsa (Mustela lutreola), igaraba (Lutra lutra), ibaiko kabuxa (Salaria fluviatis), mazkar arantzaduna (Cobitis calderoni), iparraldeko katxoa (Squalius pyrenaicus).

Espezie horiei edo beren habitatei kalte egin diezaiekeen edozein jarduera burutu ahal izateko, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legean eta Itsas eta basa Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa arautu duen uztailaren 9ko 167/1996 Dekretuan ezarritakoa eta, behar izanez gero, foru-organo eskudunak ezartzen duena.

Esangura horretan, proiektuaren sustatzaileak proposatutako neurriak, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuaren txostenean –2011ko uztailaren 22koa, eta espediente honetan dago– adierazitakoak, jarriko dira abian.

d) Obrarako sarbideak eta kontratistaren instalazio eremuak, makinak gordetzeko guneak, lan txabola, landare-lurra eta obrako materialak eta hondakinak aldi batean pilatzeko guneak proiektatzerakoan, ingurumenean ahalik eta kalte gutxiena sortzeko irizpidea izango da kontuan.

Kontratistak erabiliko dituen instalazio-guneak egokitu egingo dira, bertan gauzatuko diren jarduera askotarikoen ondorioz ingurumenean sor daitezkeen kalteak ahal dela gutxitzeko.

Obraren Zuzendaritzak onartu behar ditu kontratistak instalazioak jarriko dituen guneen ezaugarriak eta mugak, 2.c.1.9 aipatutako ingurumen aholkularitzak txostena egin ondoren.

2.c.1.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

Uren arloko organo eskudunak egoera honetan aplika daitezkeen prozeduren esparruan ezarriko dituen baldintzaz gain, honako neurri babesleak eta zuzentzaileak ere hartu beharko dira:

a) Makinak edukitzeko eta horien mantenimendua egiteko lekua drainatze naturaleko saretik isolatuko da. Zoru iragazgaitza izango du, eta efluenteak jasotzeko sistema bat, olioen eta erregaien

eraginez zorua eta urak ez kutsatzeko. Erregaien zamalanak, olio aldaketak eta tailerreko jarduerak ez dira baimenduko adierazitako guneetatik kanpo.

b) Eraikuntza-fasea, jalkin xeheen emisioa drainatze-sarera minimizatuz egin beharko da. Horretarako, ura bideratzeko gailuak eta sedimentuei eusteko sistemak proiektatu eta egikarituko dira, horietan obren ondoriozko ur kutsatuak biltzeko.

Gailu horiek neurri egokia izango dute, solidoei erarik onenean atxikiko zaiela bermatzen duten kalkulu hidraulikoen arabera, eta, betiere, isurketa lokalizatua bermatuko dute, indarrean dagoen araudian urarentzat ezarritako parametro fisiko-kimikoak betetzen dituena.

Sistema horien kokalekua eta neurri zehatzak Ebazpen honen 2.c.1.10 idatzi-zatian aipatzen den lanetarako planean jasoko da.

2.c.1.3.– Airearen kutsadura eta hauts-isuriak saihesteko neurriak.

a) Obrak dirauen bitartean, ibilgailuak iragan ondoko garbiketa-lanak zorrotz kontrolatuko dira, bai obrek ukitutako ingurunean, bai obretara sartzeko guneetan. Pistak eta behin-behinean gorri dauden azalerak erregaiatzeko sistema bat egongo da..

b) Obren eremuetako irteeretan, ibilgailuak garbitzeko gailuak jarriko dira, solidoak bildu eta tratatzeko sistema bati lotuak.

Elementu horien ezaugarriak, kokaleku zehatza eta neurriak Ebazpen honen 2.c.1.10 puntuan aipatzen den agirietan jasota egongo da.

c) Indusketatik ateratako materiala hezetasun-baldintza egokienetan garraiatuko da, zama estaltzeko gailuak dituzten ibilgailuetan, lokatzak eta partikulak barreiatu ez daitezen.

d) Tangak baldintza atmosferiko egokietan margotu eta birrinduko dira, haizerik ez dabilenean, eta, nolanahi ere, hori egin aurretik sareak jarriko dira partikulak ahalik eta gutxien barreiatu daitezen, betiere eragileak proiektuaren ingurumen-ebaluazioa egiteko emandako dokumentazioaren arabera.

2.c.1.4.– Soinuek eta bibrazioek eragindako eragina gutxitzeko neurriak.

a) Eraikitze-fasean, beharrezkotzat jotzen diren jarraibide egokiak aplikatuko dira, obra-makinen mantentze-lanei eta zarata jatorrian murrizteari dagokienez.

b) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, zonakatze akustiko, kalitate-helburu eta igorpen akustikoei dagokienez, obrak egitean erabiliko diren makinak egokitu egin beharko dira kanpoan erabiltzeko makinen soinu-igorpenei buruz indarrean dagoen araudian ezarritako aginduetara, eta, bereziki, eta hala badagokie, kanpoan erabiltzeko makinek ingurumenean sortzen dituzten soinu-igorpenak arautzen dituen otsailaren 22ko 212/2002 Errege Dekretuan eta arau osagarrietan ezarritakora.

2.c.1.5. Hondakinak kudeatzeko neurriak.

a) Obrek iraun bitartean sortutako hondakinak Hondakinei buruzko uztailaren 28ko 2011/28 Legean eta arautegi zehatzetan aurreikusitakoarekin bat etorriz kudeatuko dira.

Obran sortutako hondakin guztiak, horien balioztatzea teknikoki eta ekonomikoki bideragarria bada, hondakin-balioztatzaile behar bezala baimendu bati igorri beharko zaizkio.

Teknikoki, ekonomikoki edo ingurumen-ikuspegitik balioztatzea bideraezina dela behar bezala ziurtatu ondoren soilik deuseztatu ahal izango dira hondakinak.

b) Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sortzea eta kudeatzea arautzen duen otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan ezarritakoa hartuko da aintzat.

c) Zabortegira bidali beharreko hondakinak, hondakinak zabortegietan utzita deuseztatzea arautzen duen abenduaren 27ko 1481/2001 Errege Dekretuaren eta hondakinak hondakindegietan biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuaren arabera kudeatuko dira. Hondakin horiek karakterizatu egin beharko dira, 2002ko abenduaren 19an Kontseiluak hartutako 2003/33/EE Erabakiaren arabera, 1999/31/EEE Zuzentarauaren 16. artikuluaren eta II. eranskinari jarraiki hondakinak zabortegietan onartzeko irizpide eta prozedurak ezartzen dituenaren arabera.

Jarduerako material-soberakinak betelanak egiteko erabiltzen badira, otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

Betelanetarako, kutsatzaile-edukia A ebaluazioko balio adierazleetan (EBA-A) ezarritako baloreen azpitik duten materialak bakarrik baimenduko dira. Adierazle horiek lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean daude jasota.

d) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak (hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko oinarrizko araudia onartzen du Dekretu horrek) 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte; itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa aipatutako uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

e) Olio erabilia kudeatzeko honako hauek hartuko dira kontuan: industriako olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretua eta olio erabiliaren kudeaketa Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretua.

Baimendutako kudeatzaile bati eman arte, erabilitako olioa andel estankoetan bilduko da estalitako biltegi batean; andelok etiketatuta egon eta azpila edo atxikipen-sistemaren bat eduki beharko dute. Zola iragazgaitz gainean egon beharko dute, edozein ihes edo isuriri aurre egiteko prestatuta, elementu nagusia hautsiko balitz ere.

f) Araudi hau errazago betetzeko, lan desberdinetan sortutako hondakinak kudeatzeko sistemak edukiko dira. Lan horien arduradunek kudeatuko dituzte sistemak, langileek sistemak zuzen erabiltzen dituztela ziurtatzeko ardura izango baitute. Bereziki, inolaz ere ez da eragingo kontrolatu gabeko efluenterik erregai eta produktuak biltegiratzean, makineria mantentzeko lanak egitean edo hondakinak erretzean.

Aurrekoaren haritik, kontratistaren instalazio-eremuan aldi batean hondakin arriskutsuak pilatzeko eremu jakin bat egokituko da, hala nola olio-poteak, iragazkiak, olioak, margoak eta abar. Gainera, hondakin geldoentzako edukiontziak ere jarriko dira, hondakin arriskutsuen guneetatik bereizita. Era berean, sortutako hondakinak biltzeko gailu estankoak (bidoiak, eta abar) ezarriko dira obran zehar eta izaeraren arabera bereiziko dira. Hori guztia, aipatutako garbigunean aldi baterako biltegiratu aurretik egingo da.

g) Obretan sortutako hondakinen ingurumen-jarraipenari buruzko txosten osoa egin beharko da, eta indarrean dagoen legediak hondakinen kontrolerako, jarraipenerako eta onarpenerako jasotzen dituen agiriak erantsi beharko dira txosten horretan.

2.c.1.6.– Lur-betetzeak egiteko materialak erabiltzeko baldintzak.

Uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoa kontuan izanda eta proiektatutako lanak egiteko betelanerako edo egokitzeko materialen inguruan, ondoko materialak baino ezin dira erabili:

– Obra honetan hondeatutako materialak.

– Beste obra batzuetan hondeatutako materialak, betiere, gai kutsatzaileen edukia lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen I. eranskinean eta hondakinen eta kutsatutako lurzoruen uztailaren 28ko 22/2011 Legean jasota dauden EBA-A ebaluazioko adierazleen balioa baino baxuagoarekin.

– Eraikuntza eta eraispenetako hondakinak balioztatu ondoren sortutako bigarren mailako agregakinak, aurreko baloreak betetzen badituzte.

– Agregakin naturalak.

2.c.1.7.– Kultura-ondarea babesteko neurriak.

Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako gainerako xedapenak gorabehera, obrak egiterakoan aztarna arkeologikoren bat egon daitekeela pentsarazten duen zerbait aurkitzen bada, berehala jakinaraziko zaio Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroletako Departamentuari; gero, beharrezkoa izanez gero, berak erabakiko du zer neurri ezarri.

2.c.1.8.-Garbiketa eta obra bukatzea.

Lanak amaitu ondoren garbiketa-kanpaina zorrotza egingo da, proiektuaren eremutik obra-hondar guztiak garbitzeko. Eraispenetatik, enkofratuak kentzetik, eta oro har, garbitze-lanetan sortutako hondakinak lanen eremutik kendu eta ebazpen honetako 2.c.1.5 idatzi-zatian xedatutakoaren arabera kudeatuko dira.

2.c.1.9.– Ingurumenari buruzko aholkularitza.

Obrak amaitu arte eta horren bermeak dirauen arte, ingurumen gaietan, kultura-ondarearen zaingoan eta neurri babesle eta zuzentzaileetan, ondo jantzitako aholkularitza eduki beharko du obraren zuzendaritzak, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlaneko erabakien arabera. Baldintza-agirian obraren zuzendaritzari izendatutako egitekoak direla eta aipatutako gaiei buruz obraren zuzendaritzak erabakiak hartu aurretik aholkularitza horretako espezialistek egindako txostena hartu beharko dute gogoan.

2.c.1.10.– Lan-programaren diseinua.

Lanak hasi aurretik kontratatzaileak jarraian datozen idatzi-zatietan azaltzen diren gaiei buruzko jarduera-proposamen zehaztua egin beharko du. Proposamen horiek lanen gauzatze-programarekin batera jasoko dira eta lanen zuzendariak berariaz onartu beharko ditu, ebazpen honetako 2.c.1.9 idatzi-zatian aipatutako ingurumen-aholkularitzak txostena egin ondoren. Honakoak dira agiriok:

– Lanen gehieneko okupazioko eremuko balizatze plana, ebazpenaren 2.c.1.1.b) idatzi-zatian ezarritakoa kontuan izanda.

– Kontratistaren instalazioen eremuaren kokagunea eta ezaugarriak, Ebazpen honen 2.c.1.1.d) atalean aurreikusitakoaren arabera.

– Ebazpen honetako 2.c.1.2.b) idatzi-zatian urak bideratzeko eta sedimentuei eusteko aurreikusitako sare eta sistemen xehetasunak.

– 2.c.1.3.b) idatzi-zatian aurreikusitako kamioien gurpilak garbitzeko gailuen ezaugarriak eta kokapena.

2.c.2.– Funtzionamendu garaiko neurri babesle eta zuzentzaileak.

2.c.2.1.– Tangak erabiltzeko baldintzak.

Tangatan proiektuan aurreikusi ez den substantziaren bat biltegiratu nahi bada, eskaera egin beharko da eta, behar izanez gero, organo eskudunaren onespena. Horretarako tangek substantzia berria biltegiratzeko gai direla egiaztatu beharko da eta substantzia hori kubeto berean biltegiratzen beste substantziekiko bateragarria dela. Behar izanez gero, neurri zuzentzaileak eta kontrolerako neurri egokiak ere azalduko dira.

2.c.2.2.– Ura eta lurzorua babesteko neurriak.

a) Instalazio berriak «petrolio-likidoen biltegiak» MI-IP 02 Instrukzio Tekniko Osagarrian (ITO) ezarritakoaren arabera burutu beharko dira; biltegiak, kutxetan, hoditeria, likidoak ontziz aldatzea, drainatze-sareak eraikitzerakoan ITO horietan jasotako baldintzak bete beharko dira bai diseinuari bai segurtasun-tarteei dagokienez.

Goragokoarekin bat etorrita, gasolioa gordetzeko tanga berriek API STD 650 arauan edo Europako beste arau bateragarri batean ezarritakoa bete beharko dute.

Tangek tenperatura eta maila neurtzeko gailua izango dute, eta alarmek ozen abisatuko dute. Tangak sistema itxiaren bidez garbituko dira, kutsa dezaketen uren eragina murrizteko.

Tangetako basametroak malguak izango dira zagor eta har-txitxarren bidez, eta Dentsitate Handiko Polietilenoko xafla jarriko da kutsadura lurrera hel ez dadin. Drainatzeko hodiak jarriko dira tanga azpiko txapak pitzatu edo hausteagatik sor daitezkeen infiltrazioak atzemateko. Tangek ere drainatze-sistema bat izango dute, lurpean joango direnak, biltegiratze-terminaleko efluenteak tratatzeko sistemari kateatuta.

b) Tangak jarioei eusteko kubeta batean jarriko dira. Kubetaren azalera eta edukiera, sustatzaileak aurkeztutako proiektuan eta ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean adierazitakoak izango dira. Kubeta itxia eta estankoa izango da eta hidrokarburoak jasateko moduko materialekin zigilatuta egongo da.

Kubeten zola eta paramentu bertikalen azalerek estankotasun-baldintzak mantendu egin beharko dira, jarioek azalera horiei eragiten badiete ere. Ondorioz, azalera horiek pitzatu edo hausten badira, berehala konpondu beharko dira infiltraziorik gertatu ez dadin.

Instalazioen mantentzearekin lotutako eragiketen agirien erregistroa egingo da: ikuskapenak hilean behin, zatiak estankoak diren egiaztatzeko eta atzemandako arrakalak konpontzeko; eta urtean behin atalak estankoak diren egiaztatzea.

c) ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozeduran sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorrita, instalazioak sare independenteak izango ditu, sortutako ur desberdinak kanalizatzeko.

Ur zikin hidrokarburatuak ur hidrokarburatuen sarearen bidez bideratuko dira arazte sistemara, hau da, API hidrokarburoak banantzeko gailua, bi skimmer dituen homogeneizazio putzua eta flotatze sistema. Azken efluentea monitorizatuko da etengabe, hidrokarburo kopurua erregistratuko duen sistema, eta efluentea tratamenduaren hasierara itzuliko da ezarritako mugak gainditzen badira.

Euri ur garbiak drainatze-sarearen bidez bideratzen dira azken putzuraino, ubidera bota baino lehen, non arazte sistematik datozen urekin bat egiten duten. Putzuak bereizte birzirkulazioko sistema du tratamendu unitate nagusiraino, eta beharrezkoa denean erabiliko da.

Tangetako kubetetako urak ur hidrokarburatuen arazte sistemara bideratuko dira, hidrokarburo kutsadura dutenean. Hala ez bada, zuzenean bideratuko dira isurketa aurreko azken putzura.

Protokolo edo prozedura dokumentatua egongo da kubetak hustea kontrolatzeko, non urak hidrokarburo kopuruaren arabera kudeatzeko bidea zehaztuko den.

d) Ibaira efluenteak ubideko organo eskudunak ezarritako baldintzetan botako dira.

Esangura horretan, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio prozeduran emandako txostenarekin bat etorrita, garaiz eta proiektatutako handitze instalazio berriak martxan jarri aurretik, sustatzaileak konfederazioari eskatuko dio indarreko isurketa baimena berrikusteko.

e) Hondakin-urak tratatzeko plantan dauden sistema desberdinen irteeran laginak hartzeko kubetak gaitu eta balbulak jarriko dira, instalazioa ongi ez dabilenean gai kutsatzailerik ez isurtzeko.

f) Instalazio berriak Rivabellosan CLH enpresako biltegiratze-terminaletan jarioak atzeman, sortutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla bermatu eta istripuetan egoki jokatzeko dagoen segurtasun-sisteman txertatu beharko dira. Ur-jarioak, gabiketetako edo beste ekintza batzuetatik datozen urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

2.c.2.3.– Airearen poluzioa saihesteko neurriak.

Jarduera urtarrilaren 28ko 100/2011 Errege Dekretruaren eranskinean jaso da. Dekretu horretan, Atmosfera Kutsa Dezaketen Jardueren Katalogoa gaurkotzen da eta berori aplikatzeko oinarrizko xedapenak ezartzen dira; beraz, jarduera baimen-araubidepean eta Airearen kalitatearen eta atmosferaren babesaren azaroaren 15eko 34/2007 Legearen eta Atmosfera Kutsa ditzaketen jarduerak garatzeko instalazioak arautzeko abenduaren 27ko 278!2011 Dekretuaren gainerako betebeharren menpe egin beharko da.

Goian esandakoa kaltetu gabe, prozesuan zehar atmosferara botatzen den kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko dira, behar denean, kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango konfinatuak ez diren emisioak biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez bada, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen bada.

2.c.2.4.– Soinuek eragindako eragina gutxitzeko neurriak.

Urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzeko denaren 24. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, zonakatze akustikoari, kalitate helburuei eta sortuko den zaratari dagokionez, behar diren neurri guztiak hartuko ditu bere inguruan

III. eranskineko B1 taulan ezarritako muga-balioak gainditu ez ditzaten, betiere IV. eranskineko prozeduraren arabera ebaluatuta.

Jardueraren zuzeneko edo zeharkako eraginez, aipatutako arauaren 14 eta 16. artikuluetan zaratari buruz ezarritako kalitate helburuak gainditzen badira, jarduera horrek neurriak hartu beharko ditu helburu horiek ez gainditzeko.

2.c.2.5.– Hondakinak kudeatzeko neurriak.

Jarduera martxan den bitartean sortzen diren hondakinak kudeatzeko, Ebazpen honen 2.c.1.5 atalean ezarritako baldintzak bete beharko dira, eta baita ondorengo baldintza hauek ere:

a) Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoak kontuan hartuta, hondakin oro balioztatzera bideratu beharko da, bere kabuz kudeatuz edo baimendutako balioztatzaileari eramanez. Kasu honetan soilik ezabatu ahal izango dira hondakinak: behar bezala egiaztatzen bada ez dela bideragarria horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioztatzeko beste modu material edo energetikoen aurretik.

b) Era berean, hondakinak tratatzeko instalazio baimenduak baldin badaude Euskal Autonomia Erkidegoan, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia– eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

c) Espresuki debekatuta dago sortutako hondakin tipologia desberdinak elkarren artean edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea, horiek beren jatorritik sakabanatuz, nahasketa horiek ekiditeko biltze eta biltegiratzeko baliabideak eskuragarri daudenean.

d) Biltegiratzeko eremuak edo eremuek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isuriak edo lixibatuak sor ditzaketen hondakinetarako, hondakinak biltzeko tanga edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hauts-itxura daukaten hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin kontaktuan egotea edo haizeak herrestatzea ekidingo da eta, beharrezkoa izatekotan, estali egingo dira.

e) Hondakinak desagertu, galdu edo isurtzen baldin badira, jazoera hori berehala jakinarazi beharko zaie bai Ingurumen Sailburuordetzari, bai Erriberabeitiko Udalari.

f) Hondakin arriskutsuen kudeaketa.

– Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

– Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak bete beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrun ez daitezen.

– Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

– Hondakin arriskutsuak gehienez ere sei hilabetez egongo dira biltegiratuta, bai balioztatzera eramaten direnean, bai ezabatzera eramaten direnean; epe hori aldatu ahal izango du, kasu berezietan, biltegiratze hori gauzatuko den autonomia-erkidegoko organo eskudunak, behar

bezala frogatutako arrazoiak baldin badaude eta gizakien osasuna eta ingurumenaren babesa bermatzen badira.

– Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela agiri baten bidez egiaztatzea. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak bat datozela administrazio-baimenarekin. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, ezaugarritze xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko.

– Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan.

– Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak baimendutako kudeatzailearen instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

– Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, haien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta haien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

h) Arriskutsuak ez diren hondakinak.

– Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati.

– Hondakin horiek gehienez bi urte egongo dira biltegiratuta balioestera eramaten direnean, eta gehienez urtebete ezabatzera eramandakoan.

– Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Agiri horren kopia bidali behar da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko.

– Arriskutsuak ez diren hondakinak lekuz aldatu aurretik, segimenduari eta kontrolari buruzko agiria bete beharko da.

i) Artxibo fisikoa edo telematikoa egingo da uztailaren 28ko 22/2011 Legean ezarritakoa beteaz. Bertan, kronologikoki jasoko dira: kantitatea, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratamendurako metodoak eta lekuak, hondakin guztiak sortutako eta utzitako datak, jasotzearen maiztasuna eta garraiobideak.

Artxibatutako informazioa gutxienez hiru urtez gordeko da, eta artxibategi hori agintari eskudunen eskura egongo da ikuskapenik edo kontrolik egin behar balitz ere.

2.c.2.6.– Lurzoruaren kalitatea aurreikusitako erabilerekin bateragarria dela bermatzeko neurriak.

a) Sustatzaileak bete egin beharko ditu lurzorua kutsa dezaketen jardueren titularrentzat lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen II. eranskinean

ezarritako betekizunak, batez ere, jarduera edo instalazioa behin betiko uzten denean lurzoruaren kalitatearen adierazpena egiteko prozedura hastekoak.

Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpideak eta estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean jasotako betebeharrak betez, lurzoruaren aurretiazko egoera txostena aurkeztu beharko da eta bertan jasotako prebentziorako eta kontrolerako neurriak eta gomendioak beteko dira.

Txosten hori lantzeko, «Lurzoruaren egoeraren atariko txostena lantzeko prozedura» (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza (IHOBE S.A., 2007) kontsultatzea gomendatzen da.

b) Gainera, edozein arrazoirengatik lurzoruak induskatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak ezaugarritu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Material horiek atera aurretik, karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako erabilera zehatza Ingurumen Sailburuordetzara igorri behar dira, onar ditzan.

2.c.2.7.– Instalazioen prebentziozko mantentze-lanak.

a) Prebentzioko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura saihesteko; era berean, ezarritako neurrien jardun egokia bermatu beharko da. Isuri-ihesak daudenean lurzorua (eta dagokionean, ura) babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazkaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainezkatzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaintzeko eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak, zaintzeko eta kontrolatzeko programa bat eduki beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulen egoera, presioa arintzeko sistemaren egoera, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskatzeak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua (eta dagokionean, ura) kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

b) Era berean, atmosferaren eta ingurune urtarraren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, eta abar) eta zaintza eta kontrolerako sistemen egoera ona bermatzeko neurriak gehituko dira.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

2.D.– Ingurumena Zaintzeko Programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak proiektuaren ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluazioan aurkeztutako dokumentazioan aurreikusten denaren arabera egingo da (lekuak, parametroak eta neurketen maiztasuna). Gainera, ondoren zehazten diren beste kontrol hauek ere erantsi behar zaizkio.

Programa hori obra kontratatzeko baldintza-agirietan sartuta egon behar da, eta bete ahal izatea bermatuko duen aurrekontuaz hornituko da.

2.d.1.– Gorabeheren erregistroa.

Obrak egin ahala sortutako gorabeheren erregistroa egin beharko da, baita neurri zuzentzaileak eta babesleak noraino bete diren jasotzeko ere. Erregistro hori Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatzeko moduan egin beharko da, eta, obrak amaitzen direnean, nolanahi ere, Sailburuordetzara bidali beharko da. Proiektua gauzatzean aldaketarik egin bada, aldaketa horiek xehetasunez adierazi beharko dira. Aldaketa guztiak, gainera, ingurumenean eragin dezaketen kaltearen ikuspegitik justifikatu behar dira.

2.d.2.– Obraren okupazio-mugen kontrola.

Egindako okupazioa proiektuko aurreikuspenekin bat datorrela egiaztatuko da; obrek ez dute aurrez ikusitako azalera baino handiagoa izango.

2.d.3.– Hondakin-uren kalitatearen kontrola.

Ubide publikora isurketak egiteko baimenetan ezarritako kontrolak ere jasoko dira Ingurumena Zaintzeko Programan.

2.d.4.– Lurpeko uren kalitatearen kontrola.

Helburu horretarako lurpeko uren laginketa-estrategia bat definituko da, jarduerak ur horien kalitatean izan dezakeen eragina ezagutzeko. Besteak beste, jardueraren jarraipena egiteko modua (piezometroak eta beste tresna batzuk instalatzea), laginketa-puntuak kokatzea, kontrolerako parametroak eta neurketen maiztasuna zehaztu eta arrazoituko dira.

2.d.5.– Atmosferara egiten diren isurketak kontrolatzea.

Ingurumena Zaintzeko Programak ebazpenaren 2.c.2.3 atalaren baimenean ezarritako kontrolak jaso behar ditu.

2.d.6.– Zarataren kontrola.

Sei hilean behin neurtuko da, lehenengo bi urtean urtean bi aldiz gutxienez, zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritako metodologiari jarraituz, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanaren emaitzak egiaztatze aldera.

2.d.7.– Ingurumena Zaintzeko Programari buruzko agiri bategina.

Sustatzaileak Ingurumena Zaintzeko Programaren testu bategina landu beharko du ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterlanean, eta ebazpen honetan proposatu diren betebehar guztiak bilduko ditu.

Programa horretan kontrolatuko diren parametroak eta parametro bakoitzerako erreferentziako balioak zehaztuko dira; horrez gain, laginketarako eta analisirako metodologia, kontrolerako puntuen kokapenari buruzko kartografia xehatua, haien maiztasuna eta guztia gauzatzeko aurrekontuaren gaineko xehetasunak ere jasoko dira.

2.d.8.– Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten txosten eta analisien emaitzak behar bezala erregistratu eta Ingurumen Sailburuordetza honetara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, ingurumenean aditua den erakundeak egindako txostenarekin batera. Aipatutako txostenean, emaitzen analisia jasoko da, epe horretan emandako gertakari nagusiak, gertakarien arrazoiak eta konponbideak bereziki aipatuta.

Sustatzaileak datuak euskarri egokian bilduko ditu bi urtez gutxienez, eta Herri Administrazioen ikuskaritza zerbitzuen eskueran egongo dira; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango kasu bakoitzean aplikagarri den araudia betetzeko.

2.E.– Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egiturari eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hala egitera bagaramatza, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, baita neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan ere. Era berean, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, ingurumen-organoak neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldaraz ditzake. Hori guztia, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta, edo ingurumenarekiko eragina saihesteko ezarri diren neurri babesle, zuzentzaile zein osabidezkoak gutxiegizkoak direla egiaztatzen denean.

2.F.– Ebazpen honen aurreko idatzi-zatietan xedatutakoa kaltetu gabe, sustatzaileak Ebazpen honen 2.d.7 idatzi-zatian aurreikusitako Ingurumena Zaintzeko Programa bidali beharko dio Ingurumen organoari, hark onar dezan, Ebazpen honen jakinarazpena jasotzen denetik hasi eta bi hilabeteko epean.

2.G.– Aurreko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe, sustatzaileak honako agiri hauek igorri beharko ditu Ingurumenaren Sailburuordetzara, espedientean sartu ahal izan daitezen:

2.g.1.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epea baino lehen, obrak garatu bitartean sortutako gorabeheren erregistroa, babesteko eta zuzentzeko neurriak zein neurritaraino bete diren jasoko duena, ebazpen honen 2.d.1 idatzi-zatian aurreikusitakoaren arabera.

2.g.2.– Obrak amaitu eta bi hilabeteko epea baino lehen, hondeaketa-soberakinen eta hondakinen ingurumen-jarraipenari dagokion txostena, ebazpen honetako 2.c.1.5.g) idatzi-zatian adierazitakoaren arabera.

2.g.3.– Urtero, obrak hasten direnetik, ebazpen honetako 2.d.8 idatzi-zatian aurreikusitako ingurumena zaintzeko programari buruzko dokumentua.

3.– Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 47.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpen honek ondorio guztietarako jarduera-lizentzia emateko behar diren neurri zuzentzaileen txostena ordezkatzen duela jakinaraztea.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 47.8 artikuluaren arabera, bi urteko epea ezartzea proiektua egikaritzen hasteko, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik. Epe hori proiektuari hasiera eman gabe bukatzen bada, sustatzaileari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen hau baliogabetu egingo da. Hala ere, organo aginpidedunak hasiera emateko epea luzatu ahal izango du, behar bezala justifikatutako arrazoirik balego.

5.– Proiektuek ingurumenaren gainean duten eraginari buruzko testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 14.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, proiektuaren sustatzaileak aldez aurretik jakinarazi beharko dio ingurumen-organoari proiektuari dagozkion lanak zein egunetan hasiko diren.

6.– Ingurumenaren gaineko eraginaren adierazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 27a.

Ingurumeneko sailburuordea,
M.ª ARANZAZU LETURIONDO ARANZAMENDI.